



Bizkaiko Zubia

Ondarea

- ASTEKO GAIA -

Legeak babesten duen altxorra

Iaz, UNESCOk Bizkaiko Zubia izendatu zuen Gizateriaren Ondare. Horrek, ustez, babesa eta ospea dakartzkio zubiari, baina babesa, egia esan, aspalditik zeukan segurtatuta, EAEko erakundeek kultur ondare izendatu zutenetik behintzat. Ospea, hori bai, primeran eskertuko du gero eta gehiago turismora lerratzen ari den Bizkaiko Zubiak. Ez horrenbeste Santimamiñeko haitzuloek, bisitariei atea itxi baitizkie Gizateriaren Ondare izendatua izateko zorian dagokeen honetan. Ondare munduan, nolanahi, dena ez da “Gizateriaren”. Tokian tokiko ondarea askoz ugariagoa da, eta ez da beti erraza hura babestea. Baina egin egiten da. Hego Euskal Herrian, gure inguru osoan bezala, legeak babes-emaila zorrotzak dira, ondarearen jabe pribatuen eskubideak murriztuz. Giannini izeneko italiar bati zor omen diogu hori.

EKAIN ETA SANTIMAMIÑEKO leizeak, euren barruko margo-lanak zehatzagoak izatera, Gizateriaren Ondare —edo Munduko Ondare— izenda ditzakete urtebete barru. Espainiako Estatuak Kantauri Itsasaldeko Haitzuloetako Artea aurkeztuko dio aurten UNESCOri, Munduko Ondare bihurtzeko hautagai izan dadin, eta multzo horretan sartzen dira bi euskal kobazulo horietako pinturak, Espainiako iparraldeko beste batzuekin batera. Izendapena, izatekotan, 2008an jasoko lukete.

Bide bera hartu du San Frantzisko Xabier euskal santuak. Nafarroako Gobernua 2000. urtean hasi zen UNESCOrentzako txostena prestatzen, eta iaz lortu zuten Espainiako Ondare Historiko Kontseiluak onespina ematea proposamenari. Hala, Espainiako Estatuari dagokio orain eskaera eramatea Munduko Ondare Batzorderaino; izan ere, “estatuak dira beti hautagaitzak aurkezten dituztenak”, argitu du Elena Orellak, EAEko UNESCO zentroko proiektu arduradunak.

San Frantzisko Xabierren hautagaitza onartuta dago, baina oraingoz “gordeta”, Madrildik Ondare Historikoko Kontseiluak azaldu digunez. Nafarroako Gobernua harremanean ari da santua ibilitako herrialdeetako agintariekin, hautagaitza sustatu dezatela eskatzeko, eta horrek denbora eskatuko du. Bestalde, “UNESCOK ezarritako arau berrien arabera, herrialde bakoitzak ezin du hautagaitza bat baino gehiago aurkeztu urtean; lehen, nahi beste”, diosku Orellak. Egia esate aldera, bi ere aurkeztu daitezke, baldin eta bietako bat ondare naturala bada. Baina geroxeago mintzatuko gara zabalago UNESCOK egiten duen ondare moten sailkapenaz.

Espainiako Ondare Historiko Kontseilukoek, halaber, San Frantzisko Xabierren hautagaitza “zaila” dela aitortu digute. Santu nafarra hamahiru herrialdetan ibili zen bere bizitzan zehar, eta egindako ibilbide hori da, hain zuzen, Gizateriaren Ondaretzat hartzea nahi dutena. Ez da eskari arrunta. Aintzat hartzekotan, Xabierren ibilbidea kultur ondare material izendatuko lukete, eta azpisail hori, izenak argi dio, gauza materialek, ukigarriek, osatzen dute. Gehienbat, eraikinek edo eraikin multzoek.

Bakarra, ordezkazina eta benetakoa

Aurrekoaren adibide sendoa Bizkaiko Zubia da. Iaz izendatu zuten Gizateriaren Ondare, eta bera da, oraingoz, Euskal Herrian izendapen hori eskuratu duen eraikin bakarra. Elena Orellak azaldu duenez, Bizkaiko Zubiak bete egiten zituen UNESCOK ezarritako baldintzak, alegia, ondarea bakarra, ordezkazina eta benetakoa izatea. *Benetakoa* esanez, denboran zehar aldatu ez dena, edo oso gutxi aldatu dena esan nahi du nazioarteko erakundeak.



San Frantzisko Xabier santua Gizateriaren Ondare izendatzeko ahaleginetan dabil Nafarroako Gobernua.

“Zubiak, itxuraz, aukera gutxi zeukan izendapena eskuratzeko”, dio Orellak, “Espainia delako, Italiarekin batera, munduan Gizateriaren Ondare gehien daukan herrialdea; asmoa, beraz, beste herrialde batzuei ematea zen”. Zerk eragin zuen, azkenik, Bizkaiko Zubiaren izendapena? Batetik, industria-ondarea dela, eta hori oso urria da, ondare osoaren %2 inguru baino ez. Munduko Ondarearen Batzordeak hura sustatu nahi du orain. Bestalde, EAE zen ordura arte Gizateriaren Ondarerik ez zeukan Espainiako Estatuak autonomia-erkidego bakarra. Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian, berriaz, Done Jakue Bidea dago. Zehaz-

ki, haren adar bi. Bata, frantses bidea deritzona, Nafarroa Beheretik dator, Luzaide eta Orreagatik sartzen da Nafarroan, eta Vianatik irteten. Bestea Aragoiko bidea da; Zangozatik heltzen da Euskal Herrira, eta Garesen egiten du bat frantses bidearekin. Erromesek bi horiek aukeratzen dituzte gehien —Euskal Herrian Kostaldeko bidea ere badugun arren—, eta 1993tik dira Gizateriaren Ondare.

Honaino, Euskal Herrian dagoen Gizateriaren Ondarearen berri. Oraingoz, eskas. Kontuak kontu, zertarako balio du UNESCOn izendapen horrek? Erantzuna emateko, pixka bat gogoratu dezagun historia. 50eko hamarkadan eztabaidak egon ziren ondarearen babesaz, Bigarren Mundu Gerran gertatutako suntsipenak zirela-eta. Ondare materiala zen kezka iturri nagusia garai hartan, ordurako material-gabeaz ere hitz egiten hasiak bazeuden arren, geroago ikusiko denez. Azkenean, hamarkada amaitzearekin batera, hitzetatik ekintzetara jauzi egiteko tenorea iritsi zen, premia larriak behartuta.

Bamiyango Budak

UNESCOK, 2003ko udazkenean egindako Biltzarrean, Kultur Ondarea Nahita Suntsitzeari buruzko Adierazpena onartu zuen. Urte bi lehenago, talibanek Budaren estatua erraldoi bi leherraziti zituzten Afganistango Bamiyan haranean, eta gertakari lagarri hura gogoratuz hasten da, hain justu, Adierazpena. Budaren irudiak, gezurrezko jainko baten ikonoak talibanen ustez, ez ziren Gizateriaren Ondarea desegin zituzten unean. Monumentu ikusgarriak ziren, nolanahi. 55 metro altu zen bata eta 36 eta erdi bestea, munduko handienak beraz. Biak ere harearri egin zituzten III. eta IV. mendeen inguruan.

UNESCOK, talibanei erantzun gisa, Gizateriaren Ondare izendatu zituen, 2003ko udan, Bamiyan harana eta estatua bien hondarrak, “era horretako intolerantzia adierazpenik berriro gertatuko ez den itxaropenez”. Esan gabe doa Arrisku Zerrendan ere badagoela Bamiyan. Zerrendako lehenengoa da, ez inongo arrazoi berezirengatik, ordena alfabetikoagatik baizik.

1972tik, mundu osoko
830 ondasuni aitortu zaie
babeserako eskubidea.
Izendapena irabazten den
bezala, galdu ere gal daiteke

Assuanen erein zen hazia

1960an, Assuango presa eraikitzen hasi ziren Egipton. Ustez, lan erraldoi hark etorkizun hobeak ekarriko zien herritarrei, baina bitartean, zenbait arkeologo iraganarekin arduratuta zeuden: urtegia guztiz betetakoan, antzinako Egiptoko monumentu askotxo, batzuk garrantzi handikoak, ur azpian geratuko ziren. Hala, presa egiten hasi ziren urtean bertan, UNESCOk sustatutako lantalde batek hogeita lau monumentu mugitu zituen, gehienak inguruko leku seguruagoetara, eta gutxi batzuk atzerrira. Horietan ezagunena, beharbada, Madrilén dagoen Debod tenplua da.

Ekimen haren arrakasta antzeko beste egitasmo batzuen hazia izan zen. Baina beste hamarkada bat igaro zen ahalegin haiek ordenatuko zituen tresna sortu arte: Munduko Ondarearen Konbentzioa, 1972ko UNESCOren Biltsar Orokorrean onartua. Konbentzioak ordura arte nor bere aldetik lanean zebiltzan adar bi batu zituen. Batetik, UNESCO zegoen, kultur ondarearen babesaz egitasmo bat sortu nahian. Horretarako, ICOMOS (Monumentu eta Lekuen Nazioarteko Kontseilua) GKEaren laguntza zeukan. Gaur egun oraindik, ICOMOS arduratzen da kultur ondarearen gaineko azterketak egiteaz, hautagaiak onetsi edo gaitzesteaz eta izendatutako ondarearen jarraipena egiteaz.

Babesa, gobernuen eskutik

Munduko Ondarearen Konbentzioa onartuz geroztik, UNESCOren ustez babesa behar zuten ondasunak Gizateriaren Ondare izendatzen dira. Babes beharra ez da nahikoa, orde. Izendapena eskuratu nahi duten monumentu eta enparruek hainbat baldintza

lazko abenduan, ICOMOSen Espainiako ordezkariak adierazi zuen Done Jakue bideak Gizateriaren Ondare izateari utz diezaiokeela, Espainia aldean egitekoa den autobide baten ibilbideak harenganako eraginik izan dezakeelakoan, hurbilegi egoteagatik, antza denez. Goiko irudian, Euskal Herritik igarotzen diren eta Gizateriaren Ondare diren Aragoiko eta frantses bideak.

bete behar dituzte, eta ez nolanahikoak. Alegia, babeserako eskubidea “irabazi” egin behar dute ondasunek, “merituak” eginez. 1972tik mundu osoko 830 ondasuni aitortu zaizkie merituok. Komeni da gogoraraztea Gizateriaren Ondare izendapena irabazten den bezala, galdu ere gal daitekeela, baina hori, Elena Orellaren esanetan, ez da behin ere gertatu orain arte. ICOMOS arduratzen da aldiro ondasunak behatzeaz eta behar bezala babestuta eta zainduta segitzen dutela segurtatzeaz.

Babesa, azken batean, ez baitu UNESCOk ematen, tokian tokiko gobernuek baizik. Hautagai bat aurkezten duen estatuko, beraz, ondasuna babesteko konpromisoa hartzen du bere gain. Bestela, izendapenik ez. Espainiako Estatuan, Madrilgo Gobernuak autonomia-erkidegoen esku utzita dauka eskumen hori. Hala, gehien-gehienek dute kultur ondare lege bat. Bai EAEn bai Nafarroan, izen horixe du hain zuzen: Kultur Ondare Legea. “Lege guztiok estatuko legearen ereduari jarraiki egin dira, eta beraz antzeko neurriak dauzkate babeserako”, dio Luis Lafuentek, Espainiako Ondare Historikoaren Babeserako zuzendariordeak. Esan gabe doa dagoeneko ez garela Gizateriaren Ondareaz soilik ari, erkidego bakoitzak izenda dezakeen ondareaz baizik.


Ondarea azaleratzeko interesik ez


Gure ondarearen zati bat arriskuan egon daiteke harrobi-ustiatzaileen erruz, Jose Angel Torres Aranzadi elkarteak geologoak dioenez: “Azken urteotan, ez-ohiko interesa dago harrobi berriak handitzeko, eta baita zahar batzuk berriz lanean jartzeko ere. Normalean, harrobiok kareharrizko mendietan egoten dira, hau da, leizezulo asko dau den inguruetan”.

Torresen esanetan, harrobi bat zabaltzean leize bat agertuz gero, sarritan harrobiaren jabeek eurek ezkututzen dute, ustiapenerako oztopoa delako, “are gehiago arkeologia aldetik zerbait garrantzitsua agertzen bada barruan”. Agertutakoa aurrehistoriako pinturak badira, haitzuloa babes handieneko mailan sartzen da, eta ezin daiteke ukitu.

“Harrobiak ez dute leizezuloen agerpenaren berri ematen —adierazi du Aranzadikoak—, salbuespenak salbuespen. Esaterako, Pozalaguako kobak, Karrantzan (Bizkaia). Orduko hartan, ezin izan zutelako ezkutuan gorde edo interesgarria iruditu zitzaielako, harrobia ustiatzeari esker jakin zen haitzuloa zegoela. Baina gehienetan guztiz aurkakoa gertatzen da”.

Oso zaila da, zer esanik ez, Torresek esaten duena frogatzea. Harrobi bakoitzean behatzaile bat egon beharko litzateke etengabe, “baina hori ezinezkoa da, ez dago baliabide nahikorik”. Jakin jakiten da, hala ere. “Ingurutik dabilen norbaitek, batzuetan, salaketa egiten du, ikusi egin duelako galeria bat zabaldu dela, eta ondoren sunsitsu egin dutela, baina gehienetan oso zaila da frogatzea”.





Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Kultur Ondare Legea 1990ekoa da. Kultur Saileko Komunikazio arduradun Koldo Ordozgoitik azaldu digunez, Eusko Jaurlaritzak egiten ditu izendapenak, eta gero aldundiei dagokie ondasunen jarraipena egitea eta behar izanez gero, birgaitzeko neurriak hartzea. “Hau guztia –jarraitu du–, lurralde araudietan, udal plangintzetan... txertatuta dago. Mendebaldean indarrean dauden legedien arabera, eta hala-koa da gurea ere, ondasunen jabeak dira haren gaineko erantzukizuna daukatenak. Eta behartuta daude txukun gordetzera”. Ordozgoitik gaineratu duenez, kultur ondarearen zati handi bat esku pribatuetan dago.

Gianninik utzitako ondarea

Mendebaldeko legediek mugatu egiten dituzte jabetza pribatuari lotutako eskubideak.

Legearen arabera, ondasunen jabeak dira haren gaineko erantzukizuna dutenak eta behartuta daude txukun gordetzera. Kultur ondasun asko esku pribatuetan daude

“Hemen, Giannini doktrinari jarraiki ondu dira legeak”, azaldu du Luis Lafuentek. “Massimo Severo Giannini Zuzenbide Italiarreko katedraduna zen. Bigarren Mundu Gerrak Italiako ondareari ekarritako hondamendia ikusita, berari eskatu zioten ondare historikoa babestu

beharrari buruzko lan teorikoa egin zezan. Ordura arte bazegoen araurik, batzuk XIX. mendekoak, baina inork ez zuen inoiz esan zergatik babestu behar zen ondarea. Gianninik, oso labur esatearren, zera adierazi zuen: ondareak funtzio bat daukala gizartean, eta funtzio hori jabetzari gailentzen zaiola. Hortaz, ondarearen ugazabak ezin du nahi duena egin harekin, eta gainera jatorrizko ezaugarriak gorde behar ditu.

Pentsamolde hori, Lafuenteren esanetan, Mediterraneo arroko herrialde gehienetako legedietan txertatu da, eta baita Hego eta

ARRASATE

Martxoaren 23tik Apirilaren 1a arte, Biteri plazan

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

Bizi irakurriz!

— Ondarea

Erdialdeko Amerikako batzuetan ere, baina ez guztietan. Hainbat herrialdetan, ondasun asko arriskuan daude, legeek ez dietelako babesik eskaintzen. “Hego Amerikako herrialde bateko legearen arabera, erakunde publikoenak diren higiezinak besterik ezin daitezke babestu, jabetza pribatua ez urratzearen”.

Arrisku Zerrenda

Legediek ez ezik, gerrek eta hondamendi naturalek ere mehatxu egiten diote ondareari. UNESCOk, esaterako, Arrisku Zerrenda dauka. “Ondasuna ez bada behar bezala babesten ari, zerrenda horretan sartzen da”, dio Elena Orella UNESCO Etxeko kideak. “Zerrenda publikoa da, erakundearen web orrian dago, eta batez ere lotsa eragiteko balio du. Ez da oso luzea”. 31 elementu, zehatzak izateko. Horietatik, bi baino ez European, eta bakarra AEBetan.

Besterik da lurrikara, tsunami, urakan edo beste hondamendiren batek Gizateriaren Ondasun bat kaltetzea. Horrelakoak jasaten dituztenei, UNESCOk laguntza eskaintzen die, giza nahiz diru baliabideak igorritik. Elena Orellari jaramon egin behar badiogu, gehiago izaten dira lehenbizi aipatu dugun motakoak.

Ondasuna ez bada behar bezala babesten, UNESCOren Arrisku Zerrendan sartzen da. 31 elementu daude, bi baino ez European eta bakarra AEBetan

Funtsean, ondarea babestea gobernuen lana da, izan Gizateriaren Ondarea, izan nork bere etxean izendatzen duena. “UNESCOren izendapenak ohorea ematen du –dio Koldo Ordozgoitik-, eta guretzat garrantzitsua da hori. Ez dugu ukatuko Gizateriaren Ondare izateak gauza onak dakartzala, baina babes-legeak tokian tokikoak dira”.

Ukitu ezin daitekeen ondarea

Parisen, UNESCOren egoitza nagusia, Fernando Brugman holandarrek egiten du lan, Kultur Ondare Saileko Ondare Ez Material Azpisailean. UNESCOk 2003an onartu zuen ondare mota horri buruzko konbentzioa, baina haren gaineko gogoeta askoz lehenagokoa da, Brugmanek argitzen duenez: “50eko hamarkadan bazegoen eztabaida ondare ez materialaz. Baina Assuango presarena gertatuz geroztik, eta ondorioz 1972ko Konbentzioan, batez ere monumentuak, monumentu multzoak eta lekuak hartu ziren ondaretzat. 1972an bertan, Boliviak eskatu egin zuen Munduko Ondarearen Konbentzioak ondare ez materialari buruzko klausula bat izatea. Baina ez zen eskaria onartu, jabetza intelektual arazoak sor zitezkeelako. Eztabaida luzea

Assuango presatik Loiuko jatetxe batera

Assuango presa eraiki beharra izan zen Kultur eta Natur Ondarea Babesteko Hitzarmenaren lehenbiziko hazia. Orduko hartan, eraikinak zeuden lekutik kendu eta beste batzuetara eraman zituzten, gal ez zitezen. Askoz hurbilago, Euskal Herrian, antzeko adibideak topa ditzakegu, faraoiek utzitako ondarea baino askoz apalagoak, baina euren txikian, dotore askoak.

Mungian, Laukariz auzoan, Urgoiti hotela dago gaur egun. Historia polita dauka: 1973an, A-8 autobidea egin behar zela-eta, Galdakaoko Urgoiti jauregia eraitsi egin behar zuten. Ugazabak, Jose Maria Solanok, harriz harri desegin zuen eraikina, eta baita harri bakoitzari zenbaki bat ezarri, noizbait eta nonbait jauregia berriz eraikitzeko asmoz. Azkenik, 2004 eta 2005ean egin da lan hori, baina ez da nahi bezain samurra izan. 1983ko uholdeek harriak gordeta zeuden biltegia suntsitu zuten, eraikinaren planoak eta zenbait harriren zenbakiak ezabatuz, besteak beste. Buruhauste bat baino gehiago sortu du, beraz, hasierako itxura bera ematea Urgoitiri, baina lortu da.

Baliteke laster antzeko zerbait gertatzea Loiuko Aspaldiko jatetxeari. XV. mendean eraikitako zurezko baserri batean dago koka-

tuta, inguru eder batean baina aireportutik hurbilegi. Harentzat pista berriak behar direla-eta, jatetxea desjabetuta dago. Desjabetzea ez da oraindik bete ordea, Javier Viar jatetxeko arduradunak dioskunez.

Kontua da Aspaldiko eraistekotan berriz eraiki beharko litzatekeela, monumentu historikoa da-eta. Antza, bera da EAEn zutik dirauen zurezko baserri bakarra, eta hortik datorkio balioa. Hala, legeak dio gaur dagoen bezala berreraiki beharko litzatekeela, harriz harri eta oholez ohol, eta antzeko inguru batean gainera.



Urgoiti hotela.

Sailkapena euskal legeen arabera

EAEko Kultur Ondare Legeak bi maila ezartzen ditu babes-tutako ondasunentzako: kalifikatua eta inbentariatua. Kalifikatua da bietan gorena, eta gorentasun hori garrantziaren arabera neurtzen da. Legeak dio elementu sailkatuen deskripzio zehatza egin behar dela: ezaugarriak, erabilerak... Eta horren arabera erabakiko da zer babes mota behar duen ondasunak.

Ondare inbentariatuak ez du besteak baino babes txikiagoa, baina, Kultur Saileko Koldo Ordozgoitiren esanetan, “haien deskripzioa ez da hain zehatza; bestea neurriko trajea da, eta hau *prêt-à-porter*”. Nafarroako legea, berriz, 2005ean sortu zen; bertako Gobernuak hainbat kiderekin harremanetan jartzen saiatu gara, baina ez digute erantzun. Hala ere, badakigu Nafarroak hiru mailatan sailkatzen duela bere kultur ondarea: Kultur Interes-
a duten Ondasunak, Ondasun Inbentariatuak eta Herri

Mailan Garrantzia duten Ondasunak. Hirurei ematen zaie babes berezia, legeak dioenez behinik behin.

EAera bueltatuz, Koldo Ordozgoitik Erdi Aroko hiriguneak babesteko egin den lana azpimarratu nahi luke. “Hirigune osoak izendatu ditugu kultur ondare, eta ez lehenengo mailako monumentuak bakarrik. Eraikinez gain, hiribildu horien zenbait ezaugarri ere ondarea dira: kalea, orubeen tamaina... Hiri haietako gehienak, guztiak ez esateagatik, era planifikatuan sortu ziren. Neurri jakinak zeuden etxeak egiteko, behar izanez gero etxe erdia ere egin zitekeen”. Ondarea, orduan, ez dira etxe edo eliza bakan batzuk, hiribildu osoaren ezaugarriak baizik. “Gerta daiteke hirigune barruko etxe batek inongo baliorik ez edukitzea. Jabeak eraisteko eskubide osoa dauka, baina haren ordeztu egiten duen etxe berria hiribilduaren ezaugarrietara makurtu beharko da”.

Euskal Herriko monumentu babestuen adibide bakan batzuk

- 3 Laguardiako udaletxe zaharra (Araba)
- 3 Azukre-lantegia (Gasteiz)
- 3 Salturri baserria (Aramaio, Araba)
- 3 Kanpezuko harresia (Araba)
- 3 Gesaltza Añana (Araba)
- 3 Malpika dorrea (Zamudio, Bizkaia)
- 3 Arriluzeko portua (Getxo, Bizkaia)
- 3 Bermeoko kasinoa (Bizkaia)
- 3 San Severino plazako iturria (Balmaseda, Bizkaia)
- 3 Egiguren eta Atxurrako ontziola (Lekeitio, Bizkaia)
- 3 Bizkaiko Labe Garaiak (Sestao, Bizkaia)
- 3 Guadalupeko gotorlekua (Hondarribia, Gipuzkoa)
- 3 Jaizkibel mendiko dorreak (Lezo, Gipuzkoa)
- 3 Ordiziako azoka (Gipuzkoa)
- 3 Arratabe jauregia (Aretxabaleta, Gipuzkoa)
- 3 Iparragirre Etxea (Urretxu, Gipuzkoa)
- 3 Irantzuko Santa Maria Monasterioa (Abartzuza, Nafarroa)
- 3 Aratzuriko gaztelua (Aratzuri, Nafarroa)
- 3 Artaxoako dolmenak (Artaxoa, Nafarroa)
- 3 Gotorleku Nagusia (Iruñea)
- 3 Las Eretasko Burdin Aroko herrixka (Berbintzana, Nafarroa)

Ondare ez materiala: belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren kultur adierazpen eta ohiturak. Hala nola, hizkuntzak, ipuin herrikoiak, jaiak, dantzak, sukaldaritza...

izan zen, eta urtetan ezin izan zen adostasunik erdietsi”.

Azkenik, eta eztabaida alde batean utzita, ondare ez materiala babestu beharra aldarrikatu zuen UNESCOk, Munduko Ondarearen Konbentzioa onartu eta hamarkada bat geroago gutxi gorabehera. Eta, zer da ondare ez materiala? UNESCOk berak banatzen duen liburuxka baten arabera, “belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren kultur adierazpenak eta ohiturak. Kultur ondareztat hartzen dira: hizkuntzak, kontakizunak, ipuin herrikoiak, musika, dantzak, jaiak, sukaldaritza, artisautza...”.

Brugmanen ustez, ondare ez materialaren ezaugarriarik garrantzitsuenak transmisioa da. Transmisioa eta bizia. “Gure ustez, arrisku-tsuena eboluziorik eza da. Tradizioek beti berdin irautea ondare ez materialaren suntsitzea da. 2003ko Konbentzioaren helburua, aldiz, jendeak bere ondarea garatzea da, beste gizatalde batzuetako elementuak erabil ditzala, ondarea bere burua ezagutarazteko balia dezala, harro egon dadila ondare horretaz...”. Ondare ez materialaren eredu bat aipatu digu, bere ustez ezin hobea: bertsolaritza. Hara non euskal leize-zuloetan hasi dugun munduan zeharreko bidaiatxo honek Euskal Herrira ekarri gaituen atzera, plaza bateko mikrofono aurrera. **n**